

«Amicus Plato...»

PIARRES XARRITTON



**BERAZ** Hegoaldeko haurdeok hauteskundeak dituzue eta nere hizZeno hau argitaratuko denean, kanpaina ja bukatua izanen duzue. Zuen hautua egiteko ordua etorria izanen duzue, ja egina ez baduzue. Guk Iparraldeko, badakigu zer den. Azken bizpahiru urtetan 5 aldiz partehatu dugu joko horretan. Baina orainokan bazterretik gaude. Bazterretik bai, bainan ez ezaxol. Nola adieraz ordea, gogo-bihotzen barneko mugimendua? Beharrik xoko honetan berean, latinez hasi zait gaur goizean —maiatzak 23— J.M. Zalaka in adiskidea: «Flatus Vocis», «haize hutsa» omen den solas asko erabili delako kanpaina horretan... Betikoa alabainan! Nihaurk bada entzuten, ikusten edo irakurtzen nituelarik bizpala arpegi, latinez edo idazki, hauxe narabilan gogoan: «Amicus Plato...». Bai maite dut Platon, maite Patxi, maite Miren, maite Jose Luis, eta Jansone eta Imanol eta beste hanbat hautagai adiskide... maiteago ordea, beihalako Platonen adixide hark bezala, latinez «veritas» deitzen. Zuen egia, «Egia» diodalarik hemen, ez naiz gero metafisikaz mintoz —badakizue gure izpiritu eta errealtatea aurritzen eta uzartzen dituen misteriozko ekintza hartaz, ez —bakarrik ari naiz gurtarik bakoitzak, gezurrik ez duelarik erran nahi, bere gogo guziaz sinesten duen hartaz deplauki egiten duen aitormenaz. Egia horren beharra bainu bagenuen hauteskunde aroan, are gehiago izanen dugu hauteskunde ondoan. Adixidien arteko elkarrikiztarik nahi badugu berpiztu bederen! Eta Jaunkoak baki badugula denek, elkarrikiztaren beharra!

Kaput

TXILLARDEGI



**ESTATUTUA** ere ez...

«Ley Básica de Normalización del Uso del Euskera» (1982ko Azaroren 24koa). Irakur dezagun:

...«Art.8.1 - Toda disposición normativa o resolución oficial que emane de los poderes públicos sitos en la Comunidad Autónoma del País Vasco *Debera estar redactada en forma bilingüe...*

...«Art.8.2. - Todo acto en el que intervengan los poderes públicos sitos en la Com.Aut.del P.V., así como las notificaciones y comunicaciones administrativas, *deberán ir redactados en forma bilingüe...*

Orain, aldiz, «Tribunal Supremo del P.V.» delakoak, besterik erabaki du; eta Estatutuaren aurka. Alegia: *euskara hutsaz* erabakiak argitaratzea *diskriminatzailea* izan daitekeela; ez baitago euskaraz jakitera behar den legerik. *Erdara hutsaz* egitea, aldiz, «todos los españoles tienen el deber de conocer la lengua castellana» (Const., art.3) delata. *Ez dela diskriminatzailea*; denok jakin behar baitugu gatzelaniaz. Hitz batez: gauzak erdara hutsaz jakin-eraztea ez da bekatu. Euskara hutsaz, bai. Gauzak garbi dituzte diru berriro. Gatzelania *beharrezkoa* da; euskara berriz, ez. Euskara *baztergarria* da. Eta horixe da egia. *Legetasun* honen barruan gure nazio-hizkuntzari hau datorriko: «un kaput inequivoco». Zeren-eta «español guztiozko» gatzelaniaz dakiguz gero (Constituzioren arauera «el pueblo español» deritzonari datxezko eskubideak oro), zertarako euskara erabiliko? Dejemosnos de folkloradas popularcheras: nos entendemos ya perfectamente en castellano. El Vasconce sobra, como acaba de recordar el Tribunal Supremo».

Kaput, beraz, eta requiescat in pace. Noizko kale-erantzun *azkar* bat, hauteskunde-arotik ahain zuzen? Euskaltzaileek dute azkeneko hitza.

EL MUNDO

Gipuzkoa, deseaturakoa

Lakuako hirukoitzak gehiengoz sendesten ez bada udal eta diputazioetan, paktu bera kontraesan eror daiteke, EAJK uste izan arren, paktuak paktu, EE eta EAK ez dutela Lakuakoa zalantzan jarriko. Eta seguraski hori alde batera uzteko erabakia inork hartu ez arren, alderdietako exekutibek aurkaketa deskalifikatzaile gogorra aurrikusi dute, eta are gehiago EAJ sozialistengana hurbildu nahi dela dioen ideia gorputzen ari denean, «uste dugulako ez dela ona biztanleagoaren artean oso zabal den sektorea erabat baztertea».

CHARO ZARZALEJOS / 1991-V-24

EL PAIS

Nire hizkuntza hitzegiteko txanponaren bi aldeak

Hirugarren arrazoioa da, berreko hizkuntza duten autonomi elkarteetan denok hitzegin behar dugun hizkuntza baztertzeko ahalgintzen berri hain usu izatea, eta

Estatuko agintariek hain zehurtasun gutxiarekin jokatzeko edo batere gabe, estatuko gure ondasun gorenabestu eta bultzatzeko. Nire komentarioa ez dakit ad homines galdera ergela ez ote den izango: Pujol eta Rocak Katalunia, Ardanza eta Arzalluzek Euskadin, Galiziako Xuntako gallegohiztunek, desiragarri al deritzote XXI mendeko katalanek, euskaldunek eta gallegoek gatzelara beraien bezain zehatz eta ondo hitzegiteari? Eta horrela bada, benetan uste duzudan bezala, zergatik ez jarri, beharrei dagokien neurrian, beharrezko bitarteko politiko eta teknikoak, hori horrela izan dadin?

PEDRO LAIN ENTRALGO / 1991-V-24

EL SOL

Mespretxua hauteskontzietzei

Beharrezkoa al zen kanpainako hamabost egun hauek erabiltzea errebindikazio jakin batzuk aurrera ateratzeko? Gutzia karta batean jokatzeko al zen bi aste eskas horietan?

Ekonomia politikarekiko sindikatuen aurkakotasunak udalari eta autonomi elkarteak ari dira ordaintzen. UGT, CCOO eta Soltxaga jaunaren arteko tirabiraren fak-



ITURRIA / SUD OUEST / 91-V-24

tura, sistema demokratikoak berak ordaindu beharra dauka. Izan ere, demokrazia joku noblearen bizkar saiatzen bait dira sindikatuak onurak lortzen.

EDITORIALA / 1991-V-24

EL CORREO ESPAÑOL

PSE

Atentzioa indarrez deitzen du, hala ere, aste erabakior hauetan PSEn nagusi izan den diziplina eta barne ordenak. Ezaguna da buruzagi sozialista askok Jauregi eta

Egiguren *sozialismo vasquista*ri egotzen dietela alderdian batasuna aurtzea bere hauteslego tradizionalarekiko. Inork ez du hala ere, seriozki zalantzan jarri, egungo idazkari nagusiaren lidergotza. Ez da sekretua ere PSE-PSOeko zerrandien Espainiako gainontzeko tokietako alderdikideen adierazpenak atsekabe izugarria sortu dutela. Hori horrela izan arren, ez dio eragin batasunari. Eta azkenik ez da falta PSEn Gonzalezen Gobernuaren eta PSOEn zehaztasunik eza autonomikoa pairatzen duenik.

J. A. ZARZALEJOS / 1991-V-24

ZUZENDARIARI

Inkiszioia Euskadin

Maiatzaren 12ko igande goizean egunkari madrildar batean irakurri ahal izan nituen —gosari erdian, nire urdail tristearen kalterako— Xabier Arzalluz jaunaren adierazpen batzuk EUSKALDUNON EGUNKARIARI buruz. Kontua hauxe zen: ea Urbiola jaunak ETA eta euskal presoekin buruz egindako adierazpen batzuk —EGUNKARIAN agertutakoak— ondo jasota zeuden ala ez. Arzalluz jaunaren esplikazioa: ez omen dira ondo jaso, eta edonola ere, «komunikabide hori susmagarria da».

Nire gosaria izorratuta zegoen —euskaldun izateko urdail-ultzerak izateko arrisku-taldetan sartzen gaitu ia berez— baina horrek ez konforme pixuki-dearena izorratzeari ekin zuten kupida gabe: «Sospeschoso ¿de qué? (pixukideak ez daki euskaraz) ¿De participar en la conjura judeomasónica de izquierdas?».

Horretan gelditu zen gutzia. Gaur, astelehena, lasaiago, lerro batzuk idazterai ekin diot kontu horri buruz.

Harrigarria da pentsamendu inkisziozaleak Euskadin daukan indarra eta jarraipena. Bi zutabe dauka pentsatzeko (?) metodo horrek; bata: edozein problemaren esplikazio gisa sinestu behar dugu badagoela «konfabulazio» edo «konspirazio» bat, ez-kutuko interesak duten ez-kutuko indarrek gidatua, guztioi izorratzeko, horretarako edozein bide erabiltzea, baina batez ere makurrenak, gezurra, kasu. Bestea: gure eginkizuna ez-kutuko indar makur horien benetako manejoak agerian uztea da. (Hirugarren pausua, hau da, «brazo secular» delakoari entregatzea, hobe ez komentatzea).

Gauzak horrela planteatuta, edozein arazo «susmagarriren» mekanismoaren bidez esplikatzeko da. Jakina, beti dago «susmagarria» nor den erabakitzen duen aginte goren bat, Inkisidore Nagusia, alegia.

Baina gure kasu partikular honetan mekanismo horrek oso emaitza bereziki eman ditzake. Hau da, zergatik ez dugu pentsatu behar, metodo berbera erabiliz, Urbiola EAJ barruan sartutako submarino haxteberoa dela? Zeren eta Urbiola «susmagarria» da, EGUNKARIA baino mila aldiz gehiago. Agian, bide horretan segitzen badu, hau da, era horretako adierazpenak eginaz, horixe izango da emango zaigun hurrengo esplikazioa.

Baina jaunak, eta andreak, asko gara pentsatzen dugunak horrela ez goazela inora.

P. SAMPEDRO MADRID

Baina, bestalde nik ez dut uste handietako irakasle goaren zatirik handiena hain altruista denik. Txikiakto irakasle goaren asmtora bildu nahi, baina ageriko asmo horien azpian beren lanpostuen defentsa baizik ez dagoela esango nuke.

Adi, beraz, txikiakto sagutxoak!! Kontuz katu handi horiekin, tartean arratoi zahar franko ibili arren. Ez gero engainatzen eta aldi beren erakusten ibili.

ANDEREÑO TOLOSA

Oharra:

Eritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinatzeko 25 lerro baino luzeago idatzea gutun hauetan. Idatzi duenaren izena, telefonoa, helbidea eta NANren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu beharraz izanez gero, zuzendaritzak bere esku izango du horretarako eskubidea.

Tolosaldean eskola handiak txikia jan nahi

Publikoak ari naiz, noski. Lehendik sare horretan dauden arazo eta iskanbiletz gain, orain, irauhan ahal izateko besterik ez bada ere, txikiak janez gizen du nahi

handiak. Irudi kanpaina batetan aurrera jo dute berriki, inguru honetako eskola publikoek (handiek batez ere), bista aurrera begira dutela, etorkizunari begira, baina ezetik txikiak zelatan dituztelarik. Beren kanpaina-ta-kanpainen ondorioz, zer gerta ere, badaezpada, txikiakto ikasle goa erreserbarako eduki nahi luketelarik.

Ez da bestela ulertzen, zergatik ari diren etengabe herri txikiakto eskolei denboraz guztian protogonismoa kendu nahirik.

Kontutan izanda, gainera, inguru horretako eskola publikoaren arnasa, neurri handi batetan, txikien guraso-irakasle-ikasle goaren adoreaen birketan hartzen dela.

Ez da ulertzen bestela, zergatik, Tolosako eskola handi horietako bat, bertoko ikasle goa Tolosan lehiatu eta lortu beharrean, txikiakto esku-burdinez lotu nahian dabilen.

Eta eskola txikiak bien bitartean, etsaia etxean!! Denak ere publikoak direla-ta, agoanta-ta agoanta.

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE

Zuzendaria: PELLO ZUBIRIA

Kontseilu Editorialeko Lehendakaria: JOAN MARI TORREALDIA

Zuzendariordeak: NEREA AZURMENDI LUZIEZ ETXEZAHARRETA IÑAKI URIA

Kontseilari Ordezkariek: JOXE MIEL ZUMALABE

Gerentea: INMA GOMILA

Publizitateak: KORNELIO ROTETA

Egunkaria

Batzorde Parekidea: 72564 E Lege Gordailua: SS 800/90

HELBIDEAK

Egoitza soziala, Pulizitate eta Administrazioa: Antso Jakituna, 16-1 / 20.010 Donostia / ☎ 46 90 22 / Faxa: 45 59 57

Erredakzio eta Tailerra: ANTZA S.A. Industrialdea 01-02 Pabiloak / 20.160 Lasarte-Oria / ☎: 37 15 45 / Faxa: 36 54 93

Araba: San Antonio, 20-1. ezker. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxa: 23 38 73

Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13. esk. / (Irrintzi dorrea) / 31011 Iruñea / ☎: 17 80 77 / Faxa: 17 80 77

Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1. eskuma. / 48002 Bilbo / ☎: 423 90 62 / Faxa: 423 94 60

Lapurdi / Nafarroa Behera / Zuberoa: 2, Galuperia kaia. / 64100 Baiona / ☎: 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11